

Geografia

- **BATXILERGOA**
- **LANDIBE HEZIKETA**
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

1. Ariketa praktikoa: 4 puntu.

Mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

2. Gai bat garatzea: 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea: 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

1. Prueba práctica: 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

2. Desarrollo de un tema: 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

3. Definición de conceptos geográficos: 2 puntos.

Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2015eko UZTAILA

GEOGRAFIA


A AUKERA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2015

GEOGRAFÍA

1. Klimogramaren eta dagokion landaredi potentzialaren iruzkina. (4 puntu)



Iturria: **Meteorologiako Estatu Agentzia (AEMET)**

2. Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde atlantikoan. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Nekazaritza-ustiategi (0,5 puntu)
 - Arro hidrografikoa (0,5 puntu)
 - Metropolialdea (0,5 puntu)
 - Autonomia-erkidegoa (0,5 puntu)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2015eko UZTAILA

GEOGRAFIA


B AUKERA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2015

GEOGRAFÍA

1. Espainiako demografia-erregimenen bilakaeraren grafikoaren iruzkina (1886. urtetik orain arte). (4 puntu)



Iturria: **Estatistikako Institutu Nazionala (INE)**

2. Euskal Autonomia Erkidegoko erliebe-unitate nagusien sintesia. (4 puntu)
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Nekazari-exodoa (0,5 puntu)
 - Hiri-zabalgunea (0,5 puntu)
 - Industria-deslokalizazioa (0,5 puntu)
 - Landaredi potentziala (0,5 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoa, galdera teorikoa eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Kontuan hartuko da:

- Termiko eta prezipitazio-erregimenen urte-sasoiko deskribapena lehorraldiak eta eurialdiak, hotzaldiak eta beroaldiak eta urte-sasoiko aldeak nabarmenduz. Aipatutako ezaugarrietatik behatoki honen klima eta bere klima-barietateari dagokion kokapena (herri-gaindiko mailan) zehaztu eta ondorioztatu. Adierazi dagokion landaretza potentziala.

Itsasaldeko Klima mediterraniarra. Prezipitazio urriak maximo nagusia udazkenean delarik. Ezegonkortasunaren eragileak: tenperatura epeletako itsasoa eta aire hotzeko masak. Anplitude termiko moderatua (10-15/16 10 °C), uda beroarekin (batez besteko tenperatura > 22 °C) eta negu leuna (> 10 °C).

Mediterraneoko kosta hego-ekialdea ezik. Artadiaren basoa eta sastrakak.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4

Kontuan hartuko dira:

- Isurialde atlantikoaren eta mediterraneoaren arteko banalerrotik iparraldera kokatutako lurri dagokien paisaia da, erliebe malkartsu batean kokatua, klima ozeanikoa duena eta zoru-kalitate kaskarra.
- Populazio sakabanatua baserrietan.
- Nagusitzen den nekazaritza-ustiapena: baserria.
- Produkzio-sistema intentsiboa: baratze eta esne-espezializazioa.
- Lurraren erabilera gehiena: zuhainak, belardi natural eta baratzak
- Abeltzaintza espezializazioa: idi/behi- eta ardi-aziendak.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

- Hazkunde azkarra duten zuhaitz-espezieen baso-ustiapena

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Nekazaritza-ustiategi: Jabe edo enpresari bakar baten erantzukizunaren menpe dagoen nekazaritzako ekoizpen-unitatea.

Arro hidrografikoa: ibai batek eta bere ibaiadarrek drainaturiko lurraldea.

Metropoli ingurua: hiri nagusi eta dinamiko batek eta haren eraginpean era osagarrian hazten diren inguruko beste batzuek osatzen duten multzoa.

Autonomia-Erkidegoa: Bere ordezkarien bidez bere burua administratzeko ahalmena eta autonomia legegilea eta betearazteko eskumenak dauzkan lurralde-entitatea.

2015



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

Bereziki kontuan hartuko da:

- grafikoko bi kurben esanahia osotasunean deskribatzea.
- grafikoan ikusten diren faseak finkatzea: XX. mendearen hasierarte, 1900-1975, 1975-1998, gaurkotasuneraino.
- bakoitzaren adierazgarriak diren ondorioak aipatzea.
- gertaera esanguratsuenak nabarmentzea

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4

Kontuan hartuko da:

- Bi unitate nagusien deskribapen zuzena: Euskal Mendiak eta Ebroko Zokogunea
- Bakoitzaren unitateen aipamen zuzena eta baita ezaugarriak: Kostaldeko mendikatea, Itsasbazter aurreko mendikatea, Bost Hirietako mendigunea, Erdiko ibaibideetako mendi eta haranak, Kantabriar-Mediterraniar uren mugaleorren mendikatea, Lautada, Araba erdiguneko mendizerrak, Mendebaldeko haran eta mendizerrak, Trebiñoko arroa, Hego-ekialdeko haran eta mendizerrak, Toloño-Kantabria-Joar mendizerra, Errioxako eskualdea.
- Unitate bakoitzaren erliebe nagusien aipamena

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Nekazaritza-exodoa: landatik hirira ematen den migrazio mugimendua.

Zabalgunea: burgesiak eskatu eta zoru urbanizatu egokia ez duten hirien zabalkundeari erantzuna emateko sortutako hiri-plangintza.

Industria deslokalizazioa: bere kokapenetik, herri berrietarantz edo kostu txikiagoekin (soldatetan, zergetan, etab.) edo kualifikatutako langileekin ekoizten den eskualde industrialetarantz, enpresa industrialaren jardueraren partearen edo guztiaren lekualdaketa.

Landaredi potentziala: gizakiaren esku-hartzerik gabe toki batean berez, era natural batean, hedatu beharko lukeen landaredia.